

Iragarritako porrot baten kronika

"Gorrien Bidea" uzten denean bideak behera egiten du, baina oraingoan errepublikanoen bigarren defentsa-lerro baten ibilbideari jarraituta. Olartegiko posizioetan bezala [2, 3 eta 4], lerro luzeko sigi-saga bihurtuak erritmo berezia eranstean dio paisaia honi. Lubakiak malda oso handietara egokitzen saiatuz eraiki ziren, mapa bateko sestra-kurbak nola, baina defendatzaileei zaintzarako eta defentsarako postu onak eskainiz. Nolanahi ere, 1937ko martxoan, sektore osoa suntsituko zuen ofentsiba frankista handiaren bezperan, euskal agintariek gogor kritikatzeko zuten gotorleku horien egoera.

Bigarren lerroari dagokionez, oro har, nahikoa geratzen da egiteko. Lehenik eta behin, erresistentzia-lerro osoa falta da; izan ere, egindako lubakiak lehen zaintza-lerro bat besterik ez dira, eta, leku batzuetan, lehen lerroaren posizioek garaitzen eta menderatzen dituzte. Gainera, aipatu eragozpen hauek ditu: ez du artilleriako suaren aurkako babesik eta hegazkinen bonbardaketan aurkako babeslekurik.

Gabriel Aizpuru teniente koronelak eta Arabako Frontearen buru zenak 1937ko martxoaren 13an idatzitako txosten horretan tonu nahiko kritikoa eta ezkorra antzematen zaio defentsa-lerro horri buruz. Halako moldez, non, eraso frankista hasi zenean artilleriaren eta alemaniarren laguntza erabakigarriarekin, ezinezkoa izan baitzen posizio horietan benetako erresistentziarik egitea.

JOSU SANTAMARINA OTAOLA. ZIGOITIKO MEMORIA HISTORIKOAREN IBILBIDEAK

(2019-02-07) ERREPUBLIKAKO FRONTEA (1936-1937)